



GAIA: Aldi baterako enplegua egonkortu eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagokion lanpostuak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia.

Izendapen proposamen osagarria

2024ko apirilaren 25ean LAGA Mankomunitateko web orrialdean Mankomunitateko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko prozesuaren baitan, hutsik geratutako lanpostuak betetzearen inguruko akta argitaratu zen.

Hurrengo izangaiarekin harremanetan jarri eta beharrezko agiriak aurkezteko epea ireki zen. Epe horretan aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuz, epaimahaiak honako izendapen proposamen osagarria egin du:

Plaza zenbakia	Lanpostua	Jardunaldia	Proposatutako izangaiak
3	Gizarte hezitzailea	OSOA	Oihane Calderón Callejas

Deialdiaren 10.2 oinarria kontuan hartuta, toki erakundearen atariko deialdiaren web fitxan izendapen proposamen osagarria argitaratu eta 10 egun balioduneko epean, izangaiak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Nortasun agiri nazionalaren kopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.
- Osasun txosten ofiziala, karguaren eginkizunak betetzea eragotziko liokeen akats fisiko nahiz psikiko edo eritasunik ez duela erakusten duena.
- Zinpeko deklarazioa edo deklarazio solemnea, adierazten duena ez dagoela ezgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dela bereizia izan administrazio publikoren baten zerbitzutik (*web orrialdean dago: II. Eranskina – Zinpeko aitorpena*)
- Zin edo promesa, adierazten duena Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela (*web orrialdean dago: II. Eranskina – Zinpeko aitorpena*)

Aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiri horiek aurkezten ez dituzten izangaiak eta, orobat, deialdiko 3. oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen ez dutenak ezin izanen dira izendatu edo kontratatu, eta baliorik gabe geldituko dira haien jarduketa guztiak, deusetan galarazi gabe beren eskabideko faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna.

Leitzan, 2024ko maiatzaren 2an

Epaimahaiak,

LEHENDAKARIA
Maider Amantegi Urdalleta

BOKALA
Xabier Gartzia Azpirotz

IDAZKARIA
Maider Castilla Elarre